



EGILEAK: Oihane Perea, Naroa Sanchez, Darian Sturzan eta Aitor Diez

IKUSPEGIA eta IDEIA PRINTZIPALA

Nabegatzaile berri bat. Gauza bat bilatzen den bakoitzean, puntuak lortzen dituzu eta puntu zehatz batzuk dituzunean gauza benefikoentzako dirua inbertitzen da (Pakistango emakumeak laguntzea, errefuxiatuak...) Horrekin batera, herrialde azpigaratuetan lan egiten duten pertsonei lan duin bat ematea, eta beraiek ekoizten dutena guk saltzea, eta berriro ere kausa benefikoetan re-inbertitzea eta beraiei ordaintzea, ere.

Merkatu globalean lan egingo dugu. Gure produktua, zerbitzu ukigaitz bat da eta ere batean, bezeroen ikasketak egiteko orduan oso interesgarria izan ahal da ideia, ikusita zer sortzen duen. Gure enpresa, sozietate kolektibo bat da. Bazkide guztiok enpresaren zati dira. Bestalde, hirugarren sektoreko enpresa bat da, zerbitzu bat eskaintzen duelako. Ere, edozein pertsona erabili dezake, baina Internet erabiltzen duten pertsonek askoz ere gehiago. Kausarekin konzientzia duten pertsonek, askoz ere interesatuagoak senti ditzateke.

ZIRRIBORROA

Zer merkatu motan lan egingo dugu?

Zer eskaintzen du gure enpresak beste batzuk eskaintzen ez dutena? Zertan bereizten da beste enpresetatik?

Zeintzuk izango dira gure enpresaren... (MIAA)

- Mehatxuak
- Indarguneak
- Ahuleziak
- Aukerak

Zein da gure enpresaren helburua?

Egitura juridikoa. Ze enpresa mota garen hautatu (kooperatiba, autonomia, sozietate anonimoa, sozietate limitatua) eta izena zein izango den aukeratu.

Publizitatea eta Marketing-a. Publizitate kanpaina eta haren sorkuntza. Non egingo dugu publizitatea? Sare sozialetan, kalean, web orrialdeetan...

Zeintzuk izango dira enpresaren kostuak eta diru sarrerak.

Ze motatako baliabideak erabiliko ditugu gure enpresa garatzeko eta funtzionatu ahal izateko?

Ze motako prestakuntza beharko da enpresan? (goi mailako ikasketak, DBH...)

Entitate fisikoa izango da edo bakarrik online?

Nori zuzenduta dago?

ZIRRIBORROAREN GARAPENA

- Zer merkatu motan lan egingo dugu?

Merkatu globalean lan egingo dugu. Gure produktua, zerbitzu ukigaitz bat da eta ere batean, bezeroen ikasketak egiteko orduan edo haien jakintza garatzean oso interesgarria izan ahal da ideia, ikusita zer sortzen duen.

- Zer eskaintzen du gure enpresak beste batzuk eskaintzen ez dutena? Zertan bereizten da beste enpresetatik?

Gaur egun, gure munduan hainbat nabigatzaile desberdin daude, Google, Yahoo!, etab. Hauek oso enpresa garrantzitsuak sortutakoak dira, baina bere zerbitzuak oso erabilgarriak izan arren ez dizkiote inorako onurik sortzen egoera zail batean bizi diren pertsoneri. Gure zerbitzuarekin, nabigatzaile bat sortzen dugu, non nahiz eta horrela inolako berrikuntzarik ez dirudi beste herrialdeetako pertsoneri laguntzen die, eta gure gizartearen pentsamoldea aldatzen du era batean: pertsona guztiak kontuan hartzen ditu bere bizi baldintzak hobetu naihian baina hauek gauza txar baten moduan hartu gabe.

- Zein izango dira gure enpresaren... (MIAA)
 - Mehatxuak
 - Indarguneak

→ Ahuleziak

→ Aukerak

Gure mehatxu handiena merkatuan sartzea izango da. Merkatu honetan, enpresa oso handi eta garrantzitsuak daude, horregatik nahiko zaila izango da leiharen etekin maila berdinerira iristea. Bestalde, gure aukerak edota gure indarguneak, gure bezeroetan daude hau da, kausarekin kontzientzia hartuz gero enpresa edo gure zerbitzuak erabiltzen hasiko dira. Gure indargunea, gure berrikuntza da. Azkenez, gure ahulezia mehatxuaren aldeko da, oso zaila delako etekin handiak ateratzea hain merkatu garrantzitsu batean.

- Zein da gure enpresaren helburua?

Enpresa honen helburua da gutxien garatutako herrialdeei laguntzea eta han bizi diren pertsonen egokiera bat ematea. Ere, bertan lan egiten duten pertsonen askoz lan hobea ematea, eta haiek ekoizten dutenarekin guk saltzea, produktuetatik biltzen dugun diruarekin haiei ordaintzea. Bizitza eta etorkizun hobea haiek izateko.

- Egitura juridikoa. Ze enpresa mota gara?(kooperatiba, autonomia, sozietate anonimoa, sozietate limitatua...) eta izena zein izango den aukeratu?

Gure enpresa, sozietate kolektibo bat da. Bazkide guztiok enpresaren zati dira eta bakoitzak haren zati bat dauka. Bestalde, hirugarren sektoreko enpresa bat da, zerbitzu bat eskaintzen duelako.

Gure enpresaren izena "LAGUBENE" da. Bi hitzez osatuta dago: laguntza eta benefizientzia, gure enpresaren helburu nagusiak. Beste herrialdeetako pertsonen lagundu nahi dugu batez ere gehien behar dutenei.

- Publizitatea eta Marketing-a. Publizitate kanpaina eta haren sorkuntza. Non egingo dugu publizitatea? Sare sozialetan, kalean, web orrialdeetan...

Sare sozialetan, ia pertsona guztiak erabiltzen dituztelako eta jende askok lagundu eta partekatu dezakelako, horrela mezua jende gehiagorengana iritsiko da. Baita ere kalean, fisikoki ikusterakoan publizitatea edonor kontzientziatu ahal delako.

- Zeintzuk izango dira enpresaren kostuak eta diru sarrerak.

Kostuak, bai elektrizitatea bai WiFi-a izango dira garrantzitsuak. Estatuak eskatzen dituen zergal ordaindu beharko dira. Bestalde, sarrerak bai publizitatetik bai gure bezeroek egiten dituzten bisitetatik irabaziko ditugu.

- Ze motatako baliabideak erabiliko ditugu gure enpresa garatzeko eta funtzionatu ahal izateko?

Ezinbestekoa izango da ordenagailu bat izatea. Gure sistema sortzean, informatikan goi ikasketak dituen pertsona bat beharrezkoa izango da, bai *software-a* bai *web-a* edo bilaketa sistema antolatzen duena.

- Ze motako prestakuntza beharko da enpresan? (goi mailako ikasketak, DBH...)

DBH edo Batxilergoa ezinbestekoa izango dira, zeren eta informatika sistema bat sortzea, garatzea edo ulertzea nahiko konplexua da. Bestalde, goi-mailako informatika ikasketak edukiz gero, askoz ere errazagoa izango da gure enpresan lan egitea.

- Entitate fisikoa izango da edo bakarrik online?

Bakarrik online izango da zeren eta nabigatzailea denez, uste dugu online askoz jende gehiagok erabiliko duela, gaur egun edozer gauzatarako erabiltzen da Internet-a, eta askoz ere erosoagoa baita. Baina hau ere izango zen posible fisikoki, baina ez oso eroso.

- Nori zuzenduta dago?

Edozein pertsona erabili dezake, baina Internet erabiltzen duten pertsonak askoz ere gehiago. Kausarekin konzientzia duten pertsonak, askoz ere interesatuagoak senti ditzateke.

CANVAS



